

Balorezko proposamena

Ander Aizpuruak, Ander Alonsok, Olaia Ocak, Eñaut Romerok eta Jon Sierrak osatzen dugu taldea, eta Icarus izeneko enpresa sortuko dugu. Gure proiektuari dagokionez, bi zatitan banatzen da: webgune bat eta aplikazio bat. Hala ere, ez dira independenteak, loturik baitaude. Hau da, lehenik eta behin, proiektua webgunearekin hastea pentsatu dugu. Bertan, fitness munduarekin loturiko arropa mota guztiak salduko ditugu eta baita suplementazioa ere (proteinak, kreatina...). Bestalde, aplikazio bat ere sortuko dugu; bertan, asesoramendua eskainiko diogu bezeroari, zozketak egingo ditugu eta sare sozial moduan erabiliko dugu aplikazioa deskargatzen dutenen artean lehiakortasuna sustatzeko helburuarekin. Horretarako, jarduera fisiko ezberdin bakoitzarentzat eremu bat sortuko dugu, erabiltzaileek bertara igo beharko dituzte beren emaitzak eta guk "ranking" moduko bat osatuko dugu.



Bezero batek aipaturiko produkturen bat erosten duen aldiro, gastatu duen diru kantitatearen arabera, kodigo bat emango zaio sortuko dugun aplikazioan kanjeatzeko:

1. Egindako erosketan gastaturiko 25€ euroro boleto baterako aukera. Boleto honek, hilabetean behin aplikazioan egingo dugun zozketa batean parte hartzea ahalbidetzen du (webguneko produktuak zozketatuko ditugu, gutxienez 50€-ko balioa dutenak)
2. 50€ baino gehiagoko erosketa egiten baduzu, aplikazioaren atal bat, hau da, asesoramendua 7 sesiotan probatzeko aukera izango duzu.
3. 100€ baino gehiagoko erosketa bakoitzarengatik, aplikazioaren atal bat, hau da, asesoramendua 15 sesiotan probatzeko aukera izango duzu.

Hala ere, eskaintzak konbina daitezke, hau da, adibidez, 75€ gastatzen badituzu, lehenengo puntua eta bigarrena konbina ditzakezu, edota 100€ gastatuz gero, ez duzu nahitaez 3. eskaintza aukeratu behar, diru horrek ahalbidetzen dizun edozein konbinazio egin dezakezu aurreko bi eskaintzak erabiliz.

Bestalde, probaldia bukatzean bezeroak asesoramendua izaten jarraitu nahi badu, hiru tarifa kontratatu ahalko ditu:

1. 7 sesio hilabetean: 15€
2. 15 sesio hilabetean: 25€
3. Egunero hilabete osoan zehar: 40€

Aitzitik, aplikazioa sare sozial moduan erabiliko dugu. Horren bidez, gimnasia joaten den jendearen komunitate berri bat sortzea da gure helburua. Horretarako, bakoitzak nahi adina bideo igo ahal izango ditu aplikaziora, non igo duen pertsona bera proba fisiko bat egiten ikusten den eta baita lortutako emaitza ere. Horrela, bideo guztiak baliatuz rankingak

sortuko ditugu, emaitza hoberenak lortzen dituztenek lideratuko dituztenak. Parte hartzeagatik bakarrik, hau da, bideo bat igotzeagatik, hilabetero zozketa batean parte hartzeko aukera izango dute bezeroek eta haietako bat saritua aterako da webguneko produktu bat irabaziz. Ildo beretik, hilabetea bukatzean rankingetan lehenengo geratu direnek webgunetik nahi duten produktua aukeratzeko aukera izango dute eta guk musutruk oparituko diegu hura.

Gure proiektuak gauza ugari eskainiko dizkio merkatuari: hasteko, kompetibitatea sustatuko dugu bi alderditan: jendearen artean gure aplikazioaren bidez eta merkatuan beste enpresekiko. Bestetik, kirolariei haien emaitzak zabaltzeko plataforma digital espezifiko bat eskainiko diogu, gaur egun existitzen ez dena. Azkenik, komodidade handia eskainiko dugu, izan ere, asesoramendua online etxetik jasotzeko aukera izango du bezeroak.